



Urretxuko udala



ZUMARRAGAKO
UDALA

GABONETAKO XXXIV. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU eta ZUMARRAGA - 2023



Urretxuko udala



ZUMARRAGAKO
UDALA

**GABONETAKO
XXXIV. IDAZLAN LEHIAKETA
URRETXU eta ZUMARRAGA -
2023**

**A MAILA
SARITUAK**

1. saria: Aster Iglesias Fincias (*Egun hartan gauza oso garrantzitsu bat ikasi nuen*)
2. saria: Laia Aranburu Alvarez (*Txomin, lehenengo sorgin mutila*)
3. saria: Alba Perez Acosta (*Neguko istripua*)

GABONETAKO XXV. IDAZLAN LEHIAKETA

A 1. SARIA: ASTER IGLESIAS FINCIAS

EGUN HARTAN GAUZA OSO GARRANTSITSUA EKASIZ NUN

Egun hartan, ziarra handiarekin, galonei lurrez pentsatzen ari nintzen: Galon-gaueko afaria, salbaren etorrera, familia osoa nahai inguruan eta, nola ez, Olentzeroren aparirik. Baina telebistako albiste batek Gasahe egunerokotasunaren errealditate gordina jakitu ninduen.

Uraren eskasia zela eta, haurrak zikin zauden eta gairatutasunen mehatxupean. Ennegai falta gutxi, su hartu ezakeen edozein hondakin erabiltzen zuten ogia prestatzeko. Ez zuten elektrizitatearik eta murgikorrak kargatzeko botika loten eguzki panelak erabiltzen ari ziren... Hango biztanleek zarrakareko egoerari normaltasun bat eman nahian, sermema mortxan jartzen ari zirela ikusi nuen. -Eta nola ospatuko dituzte Galonak? - galdetu nion amari. - Beraiek ez dituzte ospatzen - erantsun zidan - Zergatik? - harrituta nik. - Beste erlijioak direlako - azaldu zidan - eta beraiek ospatzen desberdina dituzte.

Erlijioak eta ospakizunak ez darrkatela garrantzirik ulertu nuen. Hori ez da funtsezkoa, familiarekin ondo egotea laizik.

TXOMIN LHENENGO

SORGIN MUTILA

Oraindela milaka eta milaka urte sarginak edabeak eta ukenduz egiten ari zirela gizenak antortzekin etorri ziren, baina sargin batek unean eduki berri zuen, eta han eman zuen - AURRERA AURRERA DENBORAN UNIRE UMEA BETIRAKO OSASUN SENDOAN, eta bere unean plus plus batean desagertu zen. 10 urte geroago.

2020eko apirilaren 15ean Txominen urteak ziren. Hobe esanda Txominen urtebetetzerik okerrera. Lehenengo autobusa galdu zuen eta kristoren raparrada regalen. Gero aterkia puskatu zituzten. Beranduago kristoren garroaia bata zuen, xeruarri begiratu eta bere buruan eskolan regala inajunatu zuen. Begiak ireki zituen eskolan regala hartu zen eta izutu egin zen. Tirrin tirrin, denak etxera. Txominet bere matxila artu eta bere lagunek eman ziren gertatutako gortia baina ez zieten sinistu eta frogatzen saiatu zen. Txominet ez zuen ezer ulertzen. Sarak, Mikelek eta Iratxek besarkada bat eman zieten. Gero Txominet sukaldian regala pentsatu zuen eta begiak ireki zituen sukaldian regalen eta bere lagunek sinistu zieten. - Baina nola egiten duzu hori? Galdetu zion sarak. - Ez dakit - eman zuen Txominet. Afaltzeko ordua zen eta Txominen urteak zirenez bere etxean afaldu zuten. Txomini norionak zuzi abestu zieten. Javarian bere logelara joan ziren. Han bere batereak praktikatzeko hari zen. Hurrengo gauean

urte batetik gaurra arazorak zuzendela datatu
raren eta sorgin ehitarien morarora bat
hartu zuten. Jolas ordura 10 minutu falta
ziren, eta Txominek nabigabe bere ondoko
ikasleari majiaren bidet gullia kendu zuten
eta jolas orduan aspaldiko sorginen arimak
etorri ziren Txominin errieta egiterra magia
gairki erabiltze gatik. Ondoren bere istorio
guztia ezan zieten: ez diela bere
berretate gurasorak eta hari. Ikastola
bukatuta zehar eterra joan zen berriak
Bere gurasorak oso haserre zegoen eta
bere gurasorak gertututako dena kontatu zuten
lana Txominen ez zuten ezan berea berri
zela. Arrabaldem kalera joan zen eta
sorgin ehitariak morarotuta zegoenak
harropratu egin zuten magia egiten.

Sorgin ehitariak liburua readan.

Barera joan zen Sara, Mikel eta Txominekin
sorgin ehitariak berretatu egin zuten zuten
Txominen ez zuten minutu egin nahi eta horregatik
le egitela konjuru bat lota zuten. Beranduago
eratu zuten ez zuten ezan eta berriak
eratu zuten. Txominen hasierako lagunek hain
erabaketen sorgin ehitariari - Lehen ez zuten
Txominen arden sorgina zela zegoen zuten bere laguna
eta erabaketen delako desberdin tratuaren dute.

Sorgin ehitariak: ez zuten inoiz gaurra morarotatu. Eta hala berri
edo ez berri dute kalabarra eta istorioak
Zunorregako plazan.

NEGUKO ISTRI PUA

Bazen behin Lapomian bizi zen gizom
bat. Bere izena "Bizar Zuri" zen. Egunak
pasatzen zituen elfoei eta oreinei begira.
Elfoek txamo gorriak zuzkatzen, eta arropa
gorria eta berdea. Oreinak ertainak ziren.
Lapomia oso oso handia zen eta elur asko
egiten zuen. Gabonak ziren eta gau horretan
opariak banatu egiten behar zituzten. Gavean
oreinak ezin zuten lorik egiten eta gero
opariak banatu egiten behar zituzten. Gava iritsi
zenean, oreinak oso oso mehatuta zuden.
Bizar Zuri lerran sartu zen, oreinak lotu zituen
eta begun egiten zuen baina oreinak lo geratu
ziren eta lera erori egiten zen. Bizar Zurik
besoan mina hartu zuen. Itala er opariak banatu
zituen, inez joan zen etxe etxe. Egun hartan gaur
oso garrantzitsu bat ikasi zuen: "Deskantsatzea"
eta lo egitea oso garrantzitsua. 201.



Urretxuko udala



ZUMARRAGAKO
UDALA

**GABONETAKO
XXXIV. IDAZLAN LEHIAKETA
URRETXU eta ZUMARRAGA -
2023**

**B MAILA
SARITUAK**

1. **saria:** Teo Alvarez Artolazabal (*Bizitza berria*)
2. **saria:** Jon Arratibel Urkiola (*Abenduko gau beltzak*)
3. **saria:** Garazi Guede Inza (*Bukatu da*)

B
1. SARIA: TEO ALVAREZ ARTOLAZABAL BIZITZA BERRIA

Gaur euria egin du. Bihar etxetik botako naute... edo bestela nire anai-arrebek jan egingo naute... Oso urduri nago.

Iritsi da eguna! Joan naiz etxetik... Egun luzez bidaiatu dut toki perfektorearen bila. Azkenean aurkitu dut tokia: Haritz handi baten magala. Bai! Han biziko naiz. Orain etxea egitea bakarrik falta zait.

Nekatuta nago bidaiaren ondorioz, baina hil ala biziko kontua da. Nire etxea egin beharra dut.

Hasi naiz pixkanaka- pixkanaka lurrean zuloa egiten. Lehenengo, 20cm zulatu ditut. A zer nekea!

Atsedeen txiki bat egingo dut.

Orain, ehizatza joan naiz. Irin zizare bat ehizatu dut... bost egunetarako janari nahikoa.

Zulatzen jarraitu dut... 60cm-ko sakonerara iritsi behar dut. Aprobetxatu egin behar dut oraindik lurra bustia dagoela bestela lurra zulatzen, nekez hilko naiz. Bi orduz egon naiz lurra zulatzen. Azkenean 60cm-ko sakonerara iritsi naiz, deskantsatu dezaket!

Irin zizarea jango dut afaltzeko, indarra hartu behar dut. Oso nekatuta nago lurra zulatu ondoren eta, arrautzak jartzen hasi behar dut laster. Indar asko behar dut! Bihar egun gogorra izango da.

Eguzkiaren lehenengo izpiak iritsi zaizkit. Esnatzeko ordua iritsi da. Ehizara joan naiz eta azkenean janari nahiko bildu dut. Biharko indarra behar dut arrautzak jartzeko.

Iritsi da eguna! Goiz- goizetik arrautzak jartzen hasi naiz. Denera 25 bat arrautz jarri ditut. Uste baino lehenago larbetan bihurtuko dira.

Azkenean bihurtu dira arrautzak larbetan. Orain janari mordo bat eman behar diet osasuntsu hazteko.

Iadanik bi aste eman dituzte larba moduan, baina azkenean iritsi dira helduarora. Orain asko laguntzen didate, janaria ekartzen didate, larba berriak zaindu...

Inurri erreginaren bizitza zaila da, baina azkenean merezi du!

ABENDUKO GAU BELTZAK

Urte hartan, abenduko gau hotzak, inoiz baino hotz eta luzeagoak ziren Pellorentzat. Buruko minak lehertzen zizkion bere ametsak gauero. Goizean esnatu eta eguneroko haserreak hasten ziren bere etxean:

-Gosaldu eta prestatu lehenbailehen! - esaten zion amatxo Mirenek haserre.

-Ama! Benetan...ikaragarritzko buruko mina daukat!

-Badakizu eskolara joan behar duzula! Nazkatuta nago aitzakiak entzuteaz!

Amatxo Iratik hobeto ulertzen zuen. Begirada maitagarriak luzatzen zizkion, baina ez zuen ezer esaten. Azkenean, egunero bezala, eskolara joaten zen buruko min handiarekin.

Egun batean, matematikako klasean zeudela, zenbakiak bueltaka hasi zitzaizkion, bere inguruan dantzan. Bat-batean dena txuria ikusi zuen eta lurrera erori zen. Ohe batean etzanda esnatu zen, bere bi amak berari begira adi-adi zituela.

-Zer gertatzen da? - galdetu zion Pellok.

-Eskolan, zorabiatu egin zara. Ospitalera ekarri zaituzte eta medikuak nola zauden begiratu dizu. - esan zion amatxo Iratik negar malko bat erortzen zitzaion bitartean.

-Eta zer dut?- galdetu zuen Pellok berriz ere kezkatuta.

-Medikuek buruan tumore bat aurkitu dizute. Sendaezina. - erantzun zion amatxo Mirenek oso triste.

-Nola ezin dela sendatu! Ziur zerbait topatuko dugula! - esan zuen Pellok poz pozik. Azkenean bere minen arrazoia topatu zuten eta... sendatzeko bidea aurkituko zuen.

Medikuek mina kentzeko sendagai pila bat eman zizkioten eta hurrengo egunetan askoz hobeto sentitzen zen. Lagunekin jolasteko gogo handia zuen berriz ere. Baina, eskolatik etxera bueltatzen zenean, bere bi amak triste-triste topatzen zituen.

-Askoz hobeto nago! Ez daukat minik! Sendatzen ari naiz! - esaten zien, baina beraien kezka aurpegiak ez ziren aldatzen.

- Gainera, laster, Olentzero etorriko da! Berari, munduko oparirik onena eskatuko diogu! Ni sendatzea! Ziur nago beteko duela...- zihoen, irrifar handi batek Pelloren aurpegia betetzen zuen bitartean.

Gabon gaua iritsi zen eta inoiz baino urduriago zegoen Pello Olentzeroren etorrerarekin. Gabon kantak ozen abestu zituen, mendi altuenetatik Olentzerok bere ahotsa entzun eta berari ekarriko zion oparia ez ahazteko.

Afari berezia egin zuten. Pello alaitasunez zorutzen zegoen, gutxi falta zen ...ez zuen ulertzen bere bi amek zituzten aurpegi tristeak...laister sendatu behar zen...

Gau erdian, lotan zegoela, zarata ezezagun bat entzun zuen Pellok. Ohetik jeiki eta egongelara joan zen. Hantxe zegoen Olentzero bere opariarekin.

-Sendatuko al nauzu? - Galdetu zion.

-Bai, kalte egingo dizun gorputz horretatik askatuko zaitut, libre izango zara.

Orduan bi eskuetatik fuertea heldu, begietara begiratu eta berarekin eraman zuen, betirako aske.

BUKATU DA

Ezin dut gehiago! Nazkatuta nago! Eskolan azterketa eta etxekolan gehiegi ditugu! Bai, badakit jada DBH1en lan asko egin behar dela baina ezin dut guztiarekin. Eta hori gutxi balitz, etxean ere gauzak ez daude oso ondo. Nire gurasoak etengabe daude eztabaidan. Denbora guztian horrela jarraitzen badute, ez dut uste gabonetarako etxe berdinean bizitzen jarraituko dugunik. Ez da gauza erreza, baina jada ohituta nago gurasoen ohiuak entzuteaz. Ai! Barkatu, ez dut nire burua aurkeztu, Izaro deitzen naiz, 12 urte ditut eta jada DBH1en nago. Ile beltz-beltza dut, begi berdeak eta nire denbora librean (alegia oso gutxietan) lagunekin kalera irtetea gustatzen zait. Lagun asko ditut baina azkenaldian ez gaude asko elkarrekin.

Egun batean, eskolako txirrinak jo zuenean, oso azkar altxatu nintzen nire eserlekutik, gauzak jaso nituen, nire lagunei agur esan nien eta korrika itzuli nintzen nire etxera. Etxeko atea ireki nuenean hau entzun nuen:

– Ba bai. Agian hoberena gu biok banantzea izango litzateke. Nik uste dut Izaro jada nekatzen hasi dela gu eztabaidan entzuteaz. -ama zen eta aitari larrituta begiratzen ari zitzaion. Blokeatu egin nintzen, ez nekien zer egin.

– Bai, arrazoi duzu -aitak.

– ZER?! -ohiukatu nuen azkenean. Begiak malkoekin lausotzen hasi zitzaizkidan eta geroz eta okerrago ikusten nuen.

Bat-batean dena isilik geratu zen. Nire gurasoak elkarri begira geratu ziren eta ama eskuak urduritasunez mugitzen hasi zen.

– Izaro, laztana... -hasi zen aita, asperen eginez. Baina ez zuen ezer gehiago esan.

Orduan korrika joan nintzen nire gelara, atea itxi nuen, pijama jantzi, ohean etzan nintzen eta negarrez jarraitu nuen. Banekien hura noizbat gertatuko zela, baina ez

nuen espero horren goiz izango zenik. Egia esan, uste nuena baina negar gehiago egiten ari nintzen baina ezin nuen sahiestu.

Jada loak hartu nuenean, kolpe batzuk entzun nituen atean. Atea ireki nuenean gurasoak esertzeko eskatu zidaten.

– Izaro hitz egin beharra daukagu -esan zuen amak eta denbora batean banantzea erabaki zutela esan zidaten.

Egunak ohean etzanda pasatu nituen, negarrez, nere lagunekin *whatsappetik* hitz egiten, abesti tristeak entzuten... (beno eta etxekolanak egiten). Ez nuen ezer gehiago egin nahi. Behin eta berriz gauza bera errepikatzen nuen nire buruan:”bukatu da, bukatu da”.

Aste batzuk pasatu dira ordundik eta gurasoak bananduta jarraitzen dute. Aita pisu baten bila dabil eta amak aitaren gauzak kaxa batzuetan sartzen hasi da. Baina, horrez gain, askoz ere lasaiago nago, badakidalako nire gurasoentzat hoberena dela. Eta badakit gurasoak asko maite nautela.